# XEDAPEN OROKORRAK

## OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 613

*1950/2011 EBAZPENA, 2011ko abenduaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuari atxikitako kontratazio-mahaia sortzeko dena.*

Azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Publikoaren estatutuak ezarri ziren. Dekretu horren 20.4 artikuluak xedatzen duenez, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak beharrezko iritzitako kontratazio-mahaiak sortuko ditu, entitate publikoaren erakundeen tamaina aintzat hartuta, eta Administrazio Kontseiluak horretarako baimena eman ondoren. Mahai horien egitekoa kontratazio-organoari kontratuak esleitzen laguntzea izango da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 320. artikuluan ezarritako aurreikuspenak betez.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Publikoaren estatutuak onartu zituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 20.4 artikuluak honako hau ezartzen du:

«Sortzen diren kontratazio-mahaietako kideak honako hauek izango dira:

a) Lehendakaria: erakundeko zuzendaritza-kargua, kontratazio-organokoa ez dena.

b) Bi bokal, kontratazio-organoak izendatutakoak.

c) Bokal-idazkari bat. Kontratazio-organoak izendatuko du erakundeari atxikita dauden legelarien artetik edo zuzenbidean lizentziatu diren kudeaketa-teknikarien artetik. Lege-aholkulari eta mahaiko idazkari arituko da, hitza zein botoa dituela.»

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakiaren bidez (2011ko abenduaren 16ko EHAA, 237. zk.), Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua Gipuzkoako osasun-barrutiaren lurralde-eremuan eratu zen, eta erakunde horren barruan honako hauek zeuden: Mendaroko Ospitalea, Ermu, Eibar, Torreku, Elgoibar eta Debako lehen laguntzako unitateak (dagoeneko desagertua den Gipuzkoa-Mendebaldeko eskualdean zeudenak).

Osakidetza Erakunde Publikoaren estatutuetan ezarritako prozedurari jarraiki, eta administrazio-kontratazioa planifikatu eta egikaritzea atzeraezinak direla aintzat hartuta, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua bateratu eta integratu beharra dago.

Horregatik, Zuzendaritza Nagusi honek, legez eman zaizkion ahalmenez baliatuta, honako hau

EBAZTEN DU:

Mendaroko Ospitaleko zerbitzu-erakundeko kontratazio-mahaiaren osaerari buruzko aurreko ebazpen guztiak indargabetzea, eta sortu berri den Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuarentzat mahai berri bat sortzea, aurrekoa ordeztuko duena, eta kide hauek izango dituena:

Lehendakaria:

Titularra: Fernando Martín Navascues - Ekonomia eta Finantzako zuzendaria

Ordezkoak: Constancio Núñez Gañan - Erosketetako burua

Lehenengo bokala:

Titularra: Nicolás Gurrutxaga Arrillaga

Ordezkoak: Iñaki Urquidi Valmaña

Joaquín Martínez Navarro

Peio Arrosagaray Echepare

Bigarren bokala:

Titularra: Nerea Larrañaga Garaikoetxea

Ordezkoak: Alberto Ariz Eskisabel

Ricardo Bastida Rementeria

Goretti Urcelay Zaldua

Bokal-idazkaria:

Titularra: Francisco Urtusagasti Orue

Ordezkoak: Antonio Bellido García

Ana Mendiola Azurmendi

Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (4/1999 Legeaz aldatua) 107., 114. eta hurrengo artikuluetan ezartzen den moduan, ebazpen honen aurka –ez baitu administrazio-bidea amaitzen– gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.